

Israelek Libanoko hegoaldea hartu du 'segurtasun eremua' gaindituta

Bere helburua lortzeko Armada israeldarrak Nazio Batuen tropekin enfrentamenduak izan ditu

Libanoko hegoaldean Israelek eraiki zuen 'segurtasun eremua' iragan eta harantzago joan da armada israeldarra, 1982an egin bezala. Hegoaldeko herri gehiago bere esku hartu ditu eta bertan gerrilari xiekin izandako borroketan berrogeitabost baja egon dira (hildako eta zaurituen artean) gutxienez. Armada israeldarra Nazio Batuen kasko urdinekin ere enfrentamenduetan sartu da.

DONOSTIA

Herenegun Libano berriro hartzeko mehatxuak egin ziren eta atzo gauzatzen hasi zen mehatxu hori. Armada israeldarreko buruzagi militarrek «soilik behin-behineko okupazioa dela» iragarri zuten, baina 1982an ere gauza bera adierazi bazuten ere Israelek Libano osoa hartu zuen 1985a arte.

Ibilgailu blindatuak erabiliz (30 inguru), tropa israeldarreko Rachaf, Sobbrine, Yater eta Kafra herriak hartu zituzten eta bertan babesturik zeuden Hizbullah taldeko gerrilariekin enfrentamendu gogorak izan zituzten.


Armada israeldarrak lehendabiziko bi herri horiek hartu eta gero, Libanoko hegoaldean dauden Nazio Batuen kasko urdineko tropa israeldarre bidea moztzen saiatu ziren, baina israeldarre su egin zieten. Atzoko enfrentamenduetan berrogeitabost baja izan ziren. Armada israeldarrak zazpi gerrilari hil eta beste zortzi zauritu zituen. Hizbullahko gerrilariak, berriz, sei soldadu israeldar zauritu eta hil zituzten. Nazio Batuen tropen kontrako borroketan, berriz, Armada israeldarrak kasko urdin bat zauritu zuen, soldadu nepaldar bat. Beste bi zauritutakoen berri ere eman zen ondoren, hauek Fidjiko Armada-koak dira. Hauek gain, hogeitaz pertsonek zibil ere zauritu dira.

Libanoko irrati nazionalak adierazi zuenez, mila kohete inguru jaurtiki zituen atzo Armada israeldarrak 'segurtasun eremutik' kanpo, eta hartu zituen herriez gain, Ayta Al Yabal, Esrobine, Yahal el Husen, Majdel el Selm eta Yleyileh herriak bonbardeatu zituen.

GAITZESPENEN ADIERAZPEN UGARI

Israelen helburua 'segurtasun eremua' handitu edo Hizbullah taldeko gerrilariak Libano hegoaldean bidaltzea litzateke adituen iritziz. Baina Bairuten beldur dira behin hasi eta gero Libano osoa hartzea izango dutela helburu tropa israeldarreko.

Israelen eraso hauen ostean, erreakzioak alde guztietatik etorri dira. Siriako Gobernuak dagoeneko adierazi du Israelek «inbasioarekin segitzen badu «gure anaia libanoar-



✓ Siriako Gobernuak adierazi du Israelek «inbasioarekin segitzen badu «gure anaia libanoarren defentsarako mugituko» direla, Hizbullahko buruzagi berriak gerra santurako deia egiten zuen bitartean.

ren defentsarako mugituko gara», Hizbullahko buruzagi berriak gerra santurako deia egiten zuen bitartean.

Frantziako Gobernuak Nazio Batuei 425 ebazpena indarrean jartzeko eskatu zien atzo. Nazio Batuek 425 ebazpena onartzean, Israelek Libanoko hegoaldean bere kontrolpean mantentzen duen 'segurtasun eremua' libanoarren esku uzteko exigitzen zien.

Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak bere aldetik deklarazio bat egin zuen herenegun Armada israeldarrak libanoko hegoaldean burutu duen azken ekintza militarrek erakunde honetan kezka handia eragin duela esanez. Segurtasun kontseiluak egoneza adierazi du azken borroketan izandako hilketagatik. Dena den, Nazio Batuek ez dute

zehaztu zein hilketak gaitzesten dituzten. Bere deklarazioan orokorrean gertatu diren heriotzak gaitzesten dira.

Libanoko hegoaldean egondako Armada israeldarra eta Hizbullah talde xiien arteko borrokek Segurtasun kontseiluari deklarazio bat kaleratzera bultzatu diote. Deklarazio batek ez du ebazpenaren indarrik. Azken aukera hau erabat baztertuta geratu da Segurtasun Kontseiluko partaide gehienak ebazpena onartzearen kontra azaldu bait dira. Kontseiluaren ustez, ebazpen bat onartuko balitz palestinar eta israeldarren arteko bake negoziaketetan ondorio txarrak izango lituzke. Nazio Batuetako enbaxadore libanoarrak adierazi zuenez, deklarazioa ez da Libanoko Gobernuak espero zuena.

Libano, hamaiketako moduan jateko mokaua

Israel txikia izanik ere ez da Ekialde Erdiko estaturik txikiena: Libano are txikiagoa da. Estatu honek 10.000 kilometro karratu ditu, Nafarroaren azalera bera. Hori dela eta, Israeleko Armadarentzat Libano hamaiketako moduan jateko mokaua bilakatu da.

Libanok, bere ahultasuna ikusirik, 1973. urtean arabiar eta israeldarren arteko gerran ez bazuen parte hartu ere, azkenean bere burua gatazka horretan nahastuta ikusi zuen. Bairuteko agintariek 300.000 palestinarrei babesa eskaini zieten eta Palestinaren Askapenerako Erakunde (PAE) talde armatuek Libanoko hegoaldean jarri zituzten beren baseak.

Israelek Libanoko Gobernuari palestinarrek kontrolatzeko eskatu zion. Gobernuak, ordea, gerra zibilean bete bete sartuta zegoenez, ezer gutxi egin zezakeen. Or-

duan Mossadek —Israeleko zerbitzu informazioak— Libanoko milizia kristauak base palestinarrei erasotzeko konbentzitu zituzten. Urte horietan Libanoko milizia kristauak, txiitak, drusoak eta tropa siriarrak, etengabe aldatzen ziren itunak osatuz elkarren artean borrokatzen ari ziren.

Nolanahi ere, milizia kristatuek palestinarrei eginiko erasoek ez zuten gustora utzi Armada judua eta azkenik Libano inbaditzea erabaki zuten. 1982. urtean Israeleko Armadak buelta eman zuen Libanotik. 8.000 palestinar preso egin eta egun batzutan juduak Bairuten sartu ziren. Milizia kristauak hori ikusirik, Sabra eta Chatila kanpamendu palestinarretan sartu eta umeak eta agureak hil zituzten. Palestinarrek Libanotik ihes egin beharra izan zuten.

ASTEBETE

LARUNBATA

Iragan asteburuan hasi ziren gero Israelen okupazioa ekarriko zuten gertakariak. Larunbatean, Israeleko iparraldeko koartel militar batean hiru soldadu hil zituen talde ezezagun batek. Israelek Hizbullah talde islamiarrari egotzi zion errua eta «terroristen aurkako kanpaina indartu egingo» zuela iragarri zuten.

IGANDEA

Israeleko aire Armada Libanon sartu eta hileta batetik bueltan zihoan talde bati eraso egin zion. Talde horretan Abbas Musawi zihoan, Hizbullah alderdiko buruzagi nagusia, eta bonbardaketan hil zuten bere familia osoarekin batera. Israelek «terroristen aurkako erasoak egiten segituko» zuela iragarri zuten.

ASTELEHENA

Musawiren hiletetan «mendekua» hitza zen nagusi. Hizbullah taldeko gerrilariak Galilea eskualdearen aurka bonbak jaurtikitzen hasi ziren eta Libanoko hegoaldeko Armadak erantzun egin zion.

ASTEARTEA

Bi aldeetako bonbardaketek segitzen zuten eta Libanoko hegoaldeko Armadak ultimatum eman zien zenbait herri xiiri ebakuaketei ekiteko, bertan sartuko zirela iragarrita. Israeleko Armadak Libanoko hegoaldeko Armadari laguntza eskainiko ziola iragarri zuten.

ASTEAZKENA

Israeleko Armadak Libanoko hegoaldean aurkako bonbardaketei ekin zion. Hizbullah taldeko gerrilariak bonbakete hamahiru israeldar zauritu zituzten. Israeleko Armadak ere zenbait baja eragiten zien gerrilari xiiei. Israelen Libano berriro hartzeko proposamenez hitzegiten hasi zen, eta azkenik gauean hasitako inbasioarekin Armada israeldarrak segurtasun eremua gainditu zuen biharamonean.



Jan Carnogursky.

Eslovakiako lehen ministroak dioenez independentzia «benetako mehatxua» da

PRAHA

Txekoslovakian, Estatuak aurrerantzean izango duen egitura politikoa zehazteko lanak ez aurrera ez atzera egiten ez duten bitartean, txekiar eta eslovakiarren arteko ezadostasunak areagotzen ari dira. Eslovakia alde batetik eta Errepublikak txekiarra bestetik, aurrez aurre dauden bi bloke bilakatu dira.

Lehenak Prahako agintariengadik gero eta urrunago daude, besteak, batasuna zalantzan jarri ez daitekeen printzipio politikoa modura ulertzen dute. Errealitatea, ordea, oso desberdina da: Txekoslovakia politikoa eta ekonomikoa zer den eta zer izan nahi duen oraindik ez dio bere buruari itaundu.

Jan Carnogursky Eslovakiako lehen ministroak eskualde honen independentzia gero eta posibilitate sendoagoa dela uste du. Austriako hiriburuan Carnogurskyk adierazi zuenez, «independentziaren mehatxua» gero eta indartsuagoa da. Eslovakiako Legebiltzarrak Prahako agintariak Txekoslovakia politikoki egituratzeko proposatu duten hitzarmena ez du onartu. Hori dela eta, Eslovakiak, Txekosloveniaren erdiak beste erdiarekin gero eta ezadostasun handiagoak dituela frogatu da.

Cuba: lau polizia hil zituzten bi lagun exekutatu dituzte

LA HABANA

Cubak Luis Miguel Almeida Perez eta Rene Salmeron Mendoza exekutatu zituen herenegun, atzo Radio Rebelde irrati cubatarrek adierazi zuenez. Fidel Castro lehendakaria buru duen Estatu Kontseiluak bi pertsona horiei Epaitegi Gorenak ezarritako heriotz zigorra baieztatu egin zuen aurretik. Almeida eta Salmeronek heriotz zigorrerako kondena jaso zuten urtarilaren 9an Cubatik ihes egiteko unti bat ostutza zihozazela lau polizia hil zituztelako. Salmeron eta Almeida 7 lagunekin batera ihesi zihozazela harapatu zituen Polizia cubatarrek. Bosti hamabostetik hogeitamar urte bitarteko gartzela zigorra ezarri zion La Habanako Epaitegiak.